



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

# Arrasateko San Juan Taldea berrurbanizatzeko parte hartze prozesua

LEHEN BILERA ERRONDA: BILERAREN AKTA (J.M. EGUREN PLAZA)

**2023ko martxoak 14**




# Aurkibidea

<b>Aurkibidea</b> .....	2
<b>1. Parte hartze prozesuaren ezaugarriak</b> .....	3
<b>2. Saioaren ezaugarriak</b> .....	4
<b>3. Saioaren garapena</b> .....	5
3.1. Lanketa taldeetan: zein proposamenekin egiten duzu bat? Zer da gehien gustatzen zaizuna? Zer hobetuko zenuke? Zer aldatu?.....	6
3.2. Elkar jartzea.....	11

# 1. Parte hartze prozesuaren ezaugarriak

San Juan taldeko auzoaren saneamendua konpontzeko lanak egin behar dira. Arrasateko udalak aukera baliatu nahi du auzoaren berrurbanizazioa egiteko. Horretarako, parte hartze prozesu bat abiatu du eta auzotar guztiak deitu ditu bertan parte hartzera.

Horrela irudikatu da parte hartze prozesua:




Lehenik eta behin, martxoaren 2an bilera informatiboa egin zen, auzotar guztiei zuzendua, prozesuaren nondik norako nagusiak, helburuak eta baldintzak azaltzeko.

Martxoaren 13, 14 eta 16an lehen bilera erronda izango da. Gaurkoa izan da bilera erronda honen bigarren bilera. Bertan, auzotarren ikuspuntuak jasotzea da helburua. Elkarrizketa antolatzeke, 3 bilera deitu dira, plaza bakoitzeko bat, azterketa, elkarrizketak eta analisia antolatzeke.

Martxoaren 2ko bileran egindako eskaerei erantzunez, saio guztietan bizilagunek San Juan Taldeari buruz hitz egin ahal izango dute, osotasunean, San Bixente Ferrer kalea eta Zaldibar kaleko itzulbirak barne.

Lehen bilera erronda honetako ekarpenak jaso ondoren eta arkitekto taldeak aztertu ondoren, martxoaren 29an beste bilera bat egingo da bizilagun guztiekin. Bertan xehetasunetan eta zalantzetan jarriko da fokua. Horiek kontuan hartuta, berriz ere lanketa egingo da, beti ere kontuan hartuz udalaren helburua dela proiektua esleitzeko pleguak egitea, ez proiektu zehatza bera. Proposamen hau apirilean egingo den azken saioan berretsiko da. Saio horretara ere bizilagun guztiak izango dira deituak.

Epeei dagokienez, bolumen honetako proiektuak luzeak izan ohi dira. Hori dela eta, hauek dira, ondo bidean, aurreikusten diren denbora epeak:



2023an partaidetza prozesua egingo da. Kontuan hartuta maiatzean udal hauteskundeak egongo direla, aurretik amaitu beharko da. 2024 urtea izango litzateke proiektua lizitatzeko eta behin betiko diseinua egiteko garaia eta lanak 2025 urtean hasiko lirateke.

Hauteskundeen gaiak ere hainbat zalantza ekarri ditu. Izan ere, galdetu da ea zer pasako den prozesu honen emaitzekin gobernu aldaketarik ematen bada. Erantzun da ez dagoela ezer ziurtatzeko modurik eta ziurgabetasun horren jakitun egin beharko dugula aurrera parte hartze prozesu honetan.

## 2. Saioaren ezaugarriak

Hauek dira saioaren datuak:

Eguna: 2023ko martxoaren 14an, Arrasateko Udaletxeko Pleno Aretoa.

Ordutegia: 18:00-20:00

Asistentzia: 20 lagun

**San Juan Taldeko** 20 bizilagun (11 emakume eta 9 gizon)

**Arrasateko udaletik:** Zinegotziak (Anuska Ezkurra Zubizarreta eta Ander Garai Zabaleta) eta udal arkitektoak (Aitor Jauregi Larrañaga eta Amaia Iriondo Alberdi)

**Saioa bideratzen:** Emun (Naia Rodriguez Casado eta Mikeldi Zeberio Loinaz)

### 3. Saioaren garapena

Lehenik eta behin auzoari buruzko informazioa eman da, martxoaren 2ko bileran egindako eskaera bati erantzunez:

San Juan Taldeari buruzko datuak	
Etxebizitzak	199
Lokalak	18
Aparkalekuak	164
Ibilgailuak (turismoak)	167

Berrurbanizazioa gaur egungo mugikortasun arauen arabera egin behar da. Horrek, halabeharrez, ekarriko du aparkaleku kopurua murriztea. Dena den, murrizketa hori hainbat modutara egin daiteke, eta irizpide ezberdinak kontuan hartuz. Hori dela eta, 3 kasu edo eredu ezberdin aurkeztu dira, beti ere elkarrizketarako abiapuntu gisa, eta ez eredu bat edo bestearen artean aukeratzeko helburuarekin.

Hiru eredu hauek horrela aurkeztu dira, modu orokorrean:

PLAZA	HELBURU OROKORRAK		
	1. AUKERA	2. AUKERA	3. AUKERA
IPARRAGIRRE ALFONTSO X JM EGUREN			
BIXENTE FERRER KALEA			
ZALDIBAR KALEKO ITZULBIRA			
APARKALEKU KOPURUA, guztira	99	129	77

### Argibideak:

Aukera guztietan dago autoen eta pertsonen arteko elkarbizitza. Ikonokoarekin irudikatu nahi izan dena da zein gailenduko den bestearen aldean.

Aukera bakoitzean aparkalekuentzat adierazten diren kopuruak orientagarriak dira.

**1. aukera:** hiru plazetan oinezkoak gailenduko dira autoen aurretik, baina Bixente Ferrer kalea eta Zaldibar kaleko itzulbiretan autoek izango dute lehentasuna. Kasu honetan, autoentzat 99 plaza inguru erreserbatzen dira.

**2. aukera:** autoek lehentasuna izango dute eremu guztietan. Aukera honetan aparkalekuak maximizatzea lehenesten da. Aparkaleku gehien izango duen aukera litzateke, 129 ingururekin.

**3. aukera:** pertsonak lehentasuna izango dute eremu guztietan. Aukera honetan autoei San Juan Taldera sartzeko eragozpena jartzen zaie hiru plazak lotzen dituen zirkuitu baten bidez. 77 izango lirateke aparkalekuak eredu honetan.


## 3.1. LANKETA TALDEETAN

Proposamenen araberrako 3 mahai antolatu dira taldekako azterketa egiteko, mahai bakoitzean proposamen bat landu da. Auzotar batek aipatu du ez zuela aurkeztutako proposamenekin bat egiten eta laugarren mahai bat sortu da proposamen berri bat lantzeko. Mahai bakoitzean auzoaren plano bat jarri da eta taula bat ekarpenak jasotzeko. Jarraian jaso dira mahai bakoitzean bildutakoak:

### 1. MAHAIA: 1 aukera

<b>1. PROPOSAMENA</b>	ZER DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUENA?	ZER ALDATUKO ZENUKETE?	KONTUAK HARTZEKOAK
JM EGUREN PLAZA			<ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Aparcamiento para bicicletas</i></li> <li>- <i>Papeleras</i></li> <li>- <i>Podar los árboles de la parte del fronton, pegados al nº 2</i></li> </ul>
BIXENTE FERRER KALEA			
ZALDIBAR KALEKO ITZULBIRA		<i>Espaloia handitu, edo gutxienez oinezkoentzat pasoa bermatu</i>	
ALFONTSO X PLAZA			
IPARRAGIRRE PLAZA			

2. MAHAIA: 2 aukera



<b>2. PROPOSAMENA</b>	ZER DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUENA?	ZER ALDATUKO ZENUKETE?	KONTUAK HARTZEKOAK
JM EGUREN PLAZA		<i>Grupo San Juanetik gasolinerako parkinera juteko herri guztiari buelta eman behar da (ekobulebarreko obraren ondorioz)</i>	<i>Espaloiak 2m-koak bai, baina portalerako sarrerara eskaloiak murriztu. Lur guztiaren kota igo.</i>
BIXENTE FERRER KALEA	<i>-Bi aldeetan aparkalekuak egotea -Norabide bakarra zaldibarretik errekaruntz eta buelta Alfonso X plazatik</i>		<i>-Aparkalekuak egin lerro bakarrean? -Eta posible bada aparkalekuak bi aldeetan</i>
ZALDIBAR KALEKO ITZULBIRA	<i>Aparkalekuak mantendu boteloia eta borrokak ekiditeko</i>		
ALFONTSO X PLAZA			

IPARRAGIRRE PLAZA			
BESTELAKOAK	<i>Aparkalekuak mantendu ere frontoi paretan</i>		

3. MAHAIA: 3 aukera




<b>3. PROPOSAMENA</b>	ZER DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUENA?	ZER ALDATUKO ZENUKETE?	KONTUAK HARTZEKOAK
-----------------------	-----------------------------------	------------------------	--------------------



JM EGUREN PLAZA		<p><b>-Zuhaitzak ipini</b>  <b>-Bizikletak kateatzeko</b>  <b>estruktura ipini</b>  <b>-Bankuak jarri</b></p>	<p><b>Ataria kanpora aterazea</b>  <b>baimendu (barruan</b>  <b>irisgarritasuna</b>  <b>bermatzeko). Portal</b>  <b>barruan dauden</b>  <b>eskailerak ranpa</b>  <b>bategatik ordezkatu</b></p>
BIXENTE FERRER KALEA		<p><b>-Alde batean bakarrik</b>  <b>aparkamentuak eta</b>  <b>norabide bakarra ipini</b></p>	
ZALDIBAR KALEKO ITZULBIRA			<p><b>Erreka aldeko zatiari</b>  <b>buruz... aparkamentuak</b>  <b>kendu eta espaloia</b>  <b>jarri?...</b></p>
ALFONTSO X PLAZA		<p><b>Erdiko eremua dagoen</b>  <b>moduan baina "0"</b>  <b>mailan (zuhaitzak</b>  <b>mantendu)</b>  <b>Biteriko estatua garbitu</b></p>	
IPARRAGIRRE PLAZA			
<b>BESTELAKOAK</b>	<p>Udaleko aparkamentuetan baldintza "hobeak"/"onak" ipini auzokoentzat aparkamentuak kentzen direlako.</p> <p>"0" maila auzo osoan: Uholde arriskurik?</p> <p>Argiteria berriztu auzo osoan.</p> <p>Arauditik kanpo geratzen diren zuhaitzak kendu.</p>		

#### 4. MAHAIA: 4 aukera



<b>4. PROPOSAMENA</b>	ZER DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUENA?	ZER ALDATUKO ZENUKETE?	KONTUAK HARTZEKOAK
JM EGUREN PLAZA			
BIXENTE FERRER KALEA			
ZALDIBAR KALEKO ITZULBIRA			
ALFONTSO X PLAZA			
IPARRAGIRRE PLAZA			

## 3.2. ELKAR JARTZEA

Saioa amaitzeko, talde bakoitzean landutakoa azaldu dute parte hartzaileek bozeramaileen bidez. 4 taldetan garatu da elkarrizketa eta bukaeran inpresio orokorrak denon artean partekatu ditugu. Hauek dira elkarrizketa horretatik atera diren ideia nagusiak:

### Lehenengo taldea:

- Bizikletentzako aparkalekua jartzea.
- Zakarrontziak jarri auzoan zehar.
- Frontoiarene aldera dauden zuhaitzak kimatu behar dira.
- Zaldibar kaleko itzulbiran espaloiak behar dira oinezkoentzat lekua egoteko

### Bigarren taldea:

- Arazoak daude zenbait lekutan zuhaitzen eta etxeen arteko distantziarekin.
- Eguren: moduren bat bilatu kotxearekin irteteen herriari buelta osoa eman behar ez izateko. Ekobulebarraren obra egin zenean aldatu ziren norabideak, atzera buelta egin daiteke?
- Eguren: plazako sarreran ataria dagoen aldean espaloia jarri oinezkoak errespetatzeko eta ataria ez dagoen aldean espaloirik ez jarri. Posiblea da?
- Portaletara sarbidea errazteko modurik dago? Dauden hiru eskailerak murrizteko.
- Bixente Ferrer: zirkulazio aldaketa egin. Norabide bikoitza jarri hasierako zatian eta gero norabide bakarra.
- Zaldibar: Aparkalekuak mantentzearen alde liskarrak murriztu direlako.
- Frontoiarene paretan aparkalekuak mantendu.

### Hirugarren taldea:

- Kota zero auzo osoan. Uholde arriskua egongo litzateke?
- Udaleko aparkalekuan auzotarrentzat baldintza bereziak jartzeko aukera aztertu.
- Eguren: bizikletentzako lekua, bankuak, zuhaitzak eta atarietan dauden 3 eskailerak kentzeko moduren bat bilatu.
- Bixente Ferrer: Kotxeen norabidearekin zalantzak.
- Zaldibar: erreka alboko zatia oso estua da, beraz konponbide bat behar da, agian kotxeak kendu? Zalantzak dituzte. Argi daukatena orain dagoena ez dutela nahi da.
- Alfontso X: Erdiko eremua zero kotan jartzearekin ados, baina egitura berdina mantendu. Eskultura gutxienez garbitu.
- Zuhaitzek etxeekiko eduki behar duten distantzia bermatu dezatela.

### Laugarren taldea:

- Bixente Ferrer: horrela ondo dago
- Alfontso X: lorategiak ondo jarri, eskultura garbitu.
- Eguren eta Iparragirreko arazoak: espaloiek eta sarrera-irteerek ez dute legedia errespetatzen.

